

# NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA BERRIKUSTEA.

## PARTE HARTZEKO PROZESUA.

NLE-REN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

Bidasoko lurralde-mahaia

Lekua: Arizkunenea Kultur Etxea, Elizondo.

Eguna: maiatzaren 24a

Ordua: 18:00-20:00.

### SAIOAREN EGITURA

---

- 1.- Hasiera eta ongietorria.
- 2.- Parte hartzeko prozesuaren azalpena.
- 3.- NLEren zirriborria aurkeztea.
- 4.- Galderak eta ekarpenak.

Bidasoko lurralde-bileraren helburua Nafarroako Lurralde Estrategiaren zirriborria aurkeztea eta horri buruzko galderak eta ekarpenak jasotzea zen.

Garrantzitsua da adieraztea zirriborriaren inguruko parte-hartze prozesu hau prozesu osoaren fase bat dela, eta informatzeko eta parte hartzeko beste une batzuk ere daudela. Fase honetan, zirriborria da xedea, eta jasotzen diren ekarpenetan oinarrituta aldaketa ezberdinak jasan ditzake.

Garrantzitsua da adieraztea fase honetan parte hartzeko aldia ekainaren 25era arte luzatu zela, NLEren berrikuspenean parte hartzeko webgunearen bidez (<https://participa.navarra.es/processes/revision-estrategia-territorial-navarra?locale=eu>). Webgune horretan, beharrezko dokumentazioa deskarga daiteke (NLEren zirriborria eta laburpen exekutiboa) eta beharrezkotzat jotzen diren ekarpenak egin daitezke.

Erredakzio Taldeak saioan erabilitako materialak txosten honi erantsi zaizkio.

Jarraian, NLEren zirriborroa aurkeztu ondoren bilkuran egindako ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Parte-hartzaileei animatu zitzaien beren ekarpenak idatziz web-orriaren bidez bidaltzera, behar bezala kontuan har daitezten.

## GALDERA ETA EKARPEN NAGUSIAK

---

Jarraian, saioan egindako galdera eta ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Ez dira ipini pertsonen izenak, pribatutasuna babesteko arrazoiengatik.

- Kezka agertu da polizentrismorik ez dagoelako eta Iruñeko zentralizazioak gora egin duelako. Jakin nahi da zer tresna erabiliko diren gauza bera gertatzen ez jarraitzeko, eta jakinarazi da horrek guztiak aldaketa sakona eskatuko duela politika egiteko moduan: gobernantza partekatua, aurrekontu-banaketa, eta abar.
- Administrazioaren tresnak arintzeari dagokionez, beti tokiko eskala defendatu behar dela esan da, baina egia da batzuetan goi-mailako administrazioen laguntza behar izaten dela. Kezka agertu da administrazioen tresnak arindu behar badira ere, kontrola bermatu behar delako zentzuz jokatu ahal izateko.
- Zalantzak azaldu dira honetaz: nola egokitzen diren NLEra azpiegitura handiak, hala nola abiadura handiko trena edo Nafarroako Ubidea?.
- Zalantzak azaldu dira egungo krisi energetikoari aurre egiteko moduari buruz, Ukrainako gerra baino lehenagokoa dena, orain baliabide energetiko eta material gutxiagorekin.
- Euskararen gaia lantzea garrantzitsua dela esan da, zirriborroan ez baitago oso garatuta.
- Kezka agertu da merkataritza-sektoreari buruzko aipamenik ez dagoelako. Arazoa da eskualdean merkataritza erakartzeko ordenamendurik ez dagoela, eta garapen ekonomikoa turismoari

gehiegi bideratu zaiola. Ildo horretan, merkataritza antolatzekeo tresnak espero ote diren galdetu da.

- Zalantzak azaldu dira etxebizitzak birgaitzearen eta eskualdean eskala handian eguzki energia sortzeko zailtasunen inguruan. Agian eskala txikietan egin daitekeela esan da.

Ekarpenen zatia amaitu ondoren, Erredakzio Taldeak azpimarratu du garrantzitsua dela ekarpenak bidaltzea, nahi den zentzuan eta norainokoa, adierazitako webgunearen bidez eta ekainaren 25era arteko epearekin. Unea garrantzitsua da, zirriborroa aldatzeko eta aberasteko modukoa delako.